

# 3

## HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondokoa

**Saioa Labaka**

*Hiznet Graduondokoaren koordinatzailea*

[hiznet@asmoz.org](mailto:hiznet@asmoz.org)

Sarrera-data: 2013-11-30 / Onartze-data: 2013-12-20

**Laburpena.** Hiznet Hizkuntza Plangintza graduondokoak 13 urteko ibilbidea bete du aurten. Ondoko helburuak ditu ikastaroak: soziolinguistikaren oinarritzko ezagutza ematea, hizkuntza diagnosiak edo azterketak egiteko lanabesak ematea, euskararen egoera orokorra azaltzea eta abian diren hainbat hizkuntza-plangintzen (udaletakoak, Eusko Jaurlaritzakoak, hezkuntza alorrekoak, lan mundukoak...) berri ematea. Ikastaroak baliabide interesgarriak ere eskaintzen dizkio gizarteari: ikasleen ikerketa-lanak. Urtez urte, soziolinguistikaren inguruko ikerketa corpusa osatzen joan gara esan daiteke. Hizneteko webgunean daude eskuragarri sakontze egitasmoak: <http://hiznet.asmoz.org/> • **Hitz-gakoak:** *Hiznet, hizkuntza-plangintza, soziolinguistika, ikerketa-lanak.*

**Abstract.** This year the Hiznet Post-graduate Course in Language Planning will have been running for 13 years. The aims of the course are as follows: to offer basic knowledge on sociolinguistics, to provide tools to make language diagnoses and analyses, to explain the general situation of the Basque language, and to report on the many language plans that have been set up (municipal ones, those of the Government of the Basque Autonomous Community, those in the sphere of education, the workplace, etc.). The course also provides society with interesting resources: students' research work. It is possible to say that from one year to the next we have been building a research corpus on sociolinguistics. The in-depth projects can be accessed over the Hiznet website: <http://hiznet.asmoz.org/> • **Key words:** *Hiznet, language planning, sociolinguistics, research work.*

## EZAUGARRIAK ETA EGINDAKO BIDEA

I

Hiznet Hizkuntza Plangintza Graduondoa (<http://hiznet.asmoz.org/>) ez da atzo jaiotakoa. Izan ere, 13 urteko ibilbidea bete du aurten, 2001-2002 ikasturtean Asmoz Fundazioak sortu zuenetik. Orain zazpi urte, Euskal Herriko Unibertsitateko Berezko Titulua ere bada.

Batez ere, Internet bidez eskaintzen den ikastaroa izanik, sareko abantailak lagungarri izan dira ikastaroaren erakargarritasuna eta sendotasuna bermatzeko. Denbora nahieran kudeatzeko aukera eta erosotasuna erdietsi dute, berriz, ikasleek.

Aurrerapen teknologikoak bidelagun, badira ere aurrez aurreko zenbait saio ikasturtean zehar. Horietan edukien transmisioa eta horien gaineko hausnarketa ez ezik, harreman zuzenak ere lantzen dira; hala nola irakasle-ikasleen artekoak edota ikasleen beraien artean.

Dagoeneko, 500 pertsona inguru dira egitasmoan parte hartu dutenak. Erronka handia izango da ikasle zakua gehiago betetzea, baina asmo horrekin ahaleginak egiten dira, urtez urte, egitaraua egungo beharretara egokitzeko.

## EDUKIAK

I

Ikastaroak berak eskaintzen dituen edukiak dira irmotasunaren erakusle. Unibertsitate mailan soziolinguistika eta hizkuntza-plangintza lantzen dituen ikastaro bakarraz ari gara. Hizkuntzaren normalizazioan lanean aritzeko ezinbesteko trebakuntza eskaintzen du ikastaroak.

Egun, Hiznet ikastaroaren helburu zehatzak ondokoak dira:

- Soziolinguistikaren oinarritzko ezagutza eskaintzea.
- Hizkuntza-egoeraren berri zehatza jaso ahal izateko beharrezkoak diren metodologiak eta teknikak erakustea
- Euskararen egoeraren berri zehatza eskaintzea, eta baita Euskal Herriko gizarteak hizkuntzekiko eskaintzen dituen baldintzenak ere.
- Hizkuntza-egoera hobeto ulertzeko eta normalizaziorako bidean hartu beharreko estrategiak finkatzeko lagungarriak diren oinarri teorikoak eskaintzea.
- Euskararen normalizazioaren plangintzarako metodologiak eta lanabesak erakustea.
- Hizkuntza gutxituei teknologia berrien eskutik datozkien erronkak eta eskaintzen zaizkien aukera berriak ezagutaraztea.

---

**Unibertsitate  
mailan  
soziolinguistika  
eta hizkuntza-  
plangintza  
lantzen dituen  
ikastaro  
bakarraz ari  
gara.**

***Unibertsitatean,  
aholkularitza  
enpresetan eta  
herri-  
administrazioetan  
eskarmentu  
handia duten  
irakasle,  
ikertzaile eta  
profesionalekin  
osatzen da  
irakasleria.***

***Ikasleen parte-  
hartze zuzena  
ahalbidetzen  
duten foroak ere  
irakasleen  
dinamizazio eta  
gidaritzapean  
burutzen dira.***

## **IRAKASLERIA**

Soziolinguistikaren ezagutza teorikoan zein euskalgintza aplikatuan itzal handia duten adituek betetzen dute irakas-funtzioa. Hortaz, unibertsitatean, aholkularitza enpresetan eta herri-administrazioetan eskarmentu handia duten irakasle, ikertzaile eta profesionalekin osatzen da irakasleria.

Horien gain dago ere edukiak prestatu zein horien gaurkotzea; baita irakasgaien edukiez trebatzeko ikasleek burutu behar dituzten ariketen diseinua eta ikasleen ekarpenak zuzentzea ere.

Zenbait kasutan, bestalde, ikasleen parte-hartze zuzena ahalbidetzen duten foroak ere irakasleen dinamizazio eta gidaritzapean burutzen dira.

## **XEDE-TALDEAK**

Ikastaroaren hartzaileak, berriz, hauexek dira:

- Egun euskara teknikari lanetan ari diren edo egunen batean zeregin horietan aritzeko asmoa duten pertsonak.
- Urteetako jardun profesionalaren ondorioz eskarmentua duten profesionalak; egungo premia eta erronka berrien aurrean duten gaitasuna eta jakituria eguneratu nahi dutenak
- Herri administrazioan, hezkuntza-sisteman eta antzeko lan-arlotan, hizkuntza normalkuntza erantzukizun publikoa dutenak, euren egin-kizunak aurrera eramateko oinarri sendogo batetik abia daitezen.
- Euskalgintzako euskaltzaleak eta euskararen inguruan herrigintzan edo euskalgintzan lanean dabiltzanak

## **IKASLEEN PROFILA**

Azken urteetan ikasleen perfila ez da gehiegi aldatu; gehienak euskal filologia ikasitakoak dira, soziologia ikasitakoekin batera. Unibertsitate ikasketak bukatu berri dituzten ikasleen kopurua igo da azken urteetan, baina badira irakaskuntzan, enpresetan, udaletan, itzulpengintzan eta euskara elkarrekin lanean ari direnak ere, asko euskara-teknikariak.

Oro har, azpimarratu daitekeen ezaugarria da ikasleen prestakuntza-mailak jasandako bilakaera. Gaur egun, ikasleak ez dira hutsetik gerturatzen ikastarora, denboran atzera bezala. Horrek ongi erakusten ditu azken hamarkadetan eman diren aurrerapausoak, eta gure gizartean zenbat hedatu den euskararen ezagutza soziolinguistikoa.

## IKERKUNTZA EKARPENAK

I

Hiznet ikastaroak baliabide interesgarriak ere eskaintzen dizkio gizarte osoari: ikasleen ikerketa-lanak. Urtez urte, soziolinguistikaren inguruko *ikerketa corpora* osatzen joan garela esan daiteke. Hizneteko ikasleen zeregin nagusietako bat da gai zehatz baten inguruko sakontze-egitasmoa lantzea. Gutxi gorabehera, zortzi hilabeteko epean egin beharreko ikerketa-lana izaten da eta ikasle guztiek irakasle-tutore baten laguntza izaten dute. Ikasleek aukeratzen dituzte aztergaiak: enpresa/erakunde jakinetako hizkuntza-plangintzak, udalerri jakinetako euskararen egoera, sare sozialak eta hizkuntzak, eleaniztasuna hezkuntzan, lidergoa, motibazioa...

Oro har, hiru motatako lanak aurkezten dituzte: ikerketa hutsak, ikerketa aplikatuak eta gai zehatz baten inguruko hausnarketa-proposamenak. Maila altuko lan sakonak izaten dira gehienak, eta proiektu zabalago batzuen abiapuntu beste batzuk. Nolanahi den, interesgarriak guztiak. Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sarietako irabazleak ere badaude tartean. Ikasleen ikerketa-lan gehienak arestian esandako Hizneteko webgunean daude eskuragarri; 131 momentu honetan. BAT Soziolinguistika aldizkari honetan, berriz, azken bost urteetako ikerketa-lan gehienen fitxak plazaratuko dira.

2009-2013 urte bitarteko ikerketa-lanak hiru gai-multzotan sailka daitezke. Oro har, hauexek dira ikasleei gehien interesatu zaizkien eta landutako gaiak: udalerri edo hiriburuetako hizkuntza-egoeren azterketak (Gipuzkoa eta Bizkaiako herrialdeak, nagusiki), lan-mundua euskalduntzeko plangintzak, eta gazteen eta euskararen arteko harremana. Webgunean eskuragarri dauden lan guztiak kontuan hartuta, berriz, lan munduari buruzko gaiak dira gailentzen direnak, horien atzetik herrien inguruko azterketak daude. Lanen %62 emakumeek egindakoak dira, %38 gizonezkoek.

Urtez urte, argi ikusi dugu gero eta egitasmo zehatzagoak eta errealistagoak egiten dituztela ikasleek. Horietatik asko eremu ezberdinetan aplika daitezkeenak; praktikara eraman daitezkeenak, alegia. Era berean, planteamendu berritzaileak ere lantzen dira tarteka eta gai oso espezifikokoak. Zentzu horretan, ikergaien exijentzi mailari erreparatuz, gero eta zailagoa izaten da ikasle horientzat tutore-aditu egokiena bilatzea. Oro har, lanen kalitate-maila urtetik urtera areagotzen joan dela ondorioztatu dezakegu; tutoreen zuzenketa eta kalifikazioetan oinarrituta. Iturri bibliografiko zabaletan oinarritzen dira lanak, koherentzia handikoak, zehatzak eta ondo egituratuak izaten dira. ●

---

**Gaur egun,  
ikasleak ez dira  
hutsetik  
gerturatzen  
ikastarora,  
denboran atzera  
bezala. Horrek  
ongi erakusten  
ditu azken  
hamarkadetan  
eman diren  
aurrerapausoak,  
eta gure  
gizartean zenbat  
hedatu den  
euskararen  
ezagutza  
soziolinguistikoa.**

**Oro har, hiru  
motatako lanak  
aurkezten  
dituzte: ikerketa  
hutsak, ikerketa  
aplikatuak eta  
gai zehatz baten  
inguruko  
hausnarketa-  
proposamenak.**